

SECCION AMENA.

ALPER-ANDI ETA EGOARRI
NAGUSI-MORROYAK.

Alper-andi, izenaren jabe zalarik, zan ere trabena-zalechoa, eta morroyak denbora guchi egiten zuten bere echean. Sartu zan morroi Egoarri, aren echean, biak elkarrekin denbora asko egiteko asmoan. Baña laster aspertu zan nagusia; alare eziñ zuen bota echetik morroya. Nagusia berandu jaikitzen zan; beranduago morroya, eta ori, egunero nagusiak sermoi bat egiñ bear izaten ziola jaikiko bazan, nunbait izenaren jabe izateagatik. Gau batean kontu kontari zeudela sukaldean, esan zuen auzoko batek:

¿Zér da gauzarik onena logalea ekartzeko?

—Moskorra artzea—eranzun zuen batek.

—Gaba galtzea—beste batek esan zuen.

—Lanean ondo nekatzea—zion nagusiak.

Jaunak,—esan zuen morroyak,—bakoitzak bere iritzia esango du, baña neretzat logalea ekartzeko gauzarik onena da, nere nagusi maite-maiteak goizero egiten didan sermoya. Emen guziak isill-isillik gelditu ziran. Bigaramon goizean deitzen dio nagusiak oyetik morroyari.

—Aizak mutill, jaiki ari.

—Bai, bai; berealase,—dio morroyak.

Andik laster dio nagusiak:

—Mutill, ¿jaiki intzan?

—Bai, bai: oranche noa...

—¿Abarkak jantzi dituk?

—Baita, baita; bat jazteko eta bestea oranche jazte ra.

- Begira zak sukaldean surik dagoan.
 —Ongi da: mōs, biz, biz, biz, biz... miziña... miziña... mōs...
 —¿Zér: katuari deitzen diok?
 —Bai, bai: katuak su-ondoan lo egiten du, eta epel badator, siñale da sua dagoala.
 —Ikusi zak euririk, ote dan.
 —Baita ere: fiu... fiu... fiu... (chistuka) moriko, moriko...
 —¿Zér ari aiz?
 —Chakurrari deika; bada atariyan lo egiten du, eta bustiya badator, siñale euria dala.
 Emen oso aserreru eta sutzen da Alper-andi, eta deitzen dio:
 —Egoarri: ua nere echetik.
 —Ema-iztatzu soldatak—dio morroyak.
 —Emango dizkiat igandian.
 —Juango naiz astelenian.
 —¿Zéin da nagusia?
 —Soldata ematen duena.
 —Aitzakia ugari: soldata-gabe ere joan bearko dek gaur nere echetik.
 —Juezak agintzen badu bai.

Juezaren izenak beldurtu zuan Alper-andi, bada len ere juezez aspertua zegoan, eta arterañoko guzia jolasean izan bazen bezala, elkarrekiñ trabenara joan, picherdi-bana edan, eta asi ziran bersoetan:

Nagusiak.

Amalau dukat iri
 Bazeuzkat emanik,
 Oyen erdirik ere
 Ez dek egiñ lanik;
 Ayek emana ere
 Damu diat bai nik,
 Zergatik ez dagoan
 Irekin gauz onik.

Morroyak.

Nerekiñ ezpada-re
 Gauz onik izango,
 Morraletik ez dizu
 Zuri iñork jango;
 Soldatak artu gabe
 Ez naitzatzu joango
 Dantza-erazo gabe
 Naikua pandango.

—¡Ai! ¡ai!; nik baño obeki daki onek legeen berri—esan zuen bere barruan Alper-andik; —ongi konsejatua dago; gaitzian eziñ ezer egingo diot, eta onez onean zerbaít egiñ bearko.

Goiz batean Egoarri oyan zegoala, beti bezela, joan zitzayon na-

gusia poltsa bat-diru eskuan zuela, esanaz:—Zarren esaera da, goiz jaikitzen danari Jaungoikoak laguntzen diola, eta egia da: goiz jaiki naizelako topatu det diru-poltsa.

—Beraz soldatak pagatzeko dirua badezu—eranzun zion morroyak.

—Etzekiat zenbat diru dagoen: baña esaten diat, lengo zarren esaera dala, (eta egi andia) Jaungoikoak laguntzen diola goiz jaikitzen danari.

—Goiz jaikia izango zan bada poltsa galdu duena ere, Jaungoikoak lagundu badio edo ezpadio. Baña nik ezdet beñere goiz jaikitze go-gorik; ¿badakizu zergatik? Poltsa galtzeko beldurrez.

—Ago iñillik, beti aitzaki billa ibilli gabe, alpertzar ori.

—Gizona bazera, gaur gabean churrut bat emango aldezu non-bait, poltsa orretatik pagatzeko.

—Onekiñ gauz onik etziok—esan zuen bere gogoan, nagusiak,—eman ta pakea. Ekarrri ziran bi pichar ardo, eta afal-ondoan ayek edanaz, zerbait zerrepeldu ziranean, asi ziran bersoetan:

Nagusiak.

Oso maite zaitut nik
¡O nere morroya!
Baña maiteago zuk
Dezu zure oia;
Egiñagatikan nik
Goizero sermoia
Lanerako zera zu
Alper zere-koya.

Morroyak.

Zu zera Alper-andi
Ni naiz Egoarri,
Askocho nai diogu
Guk biok elkarrri:
Baña alare gera
Ibilliko larri,
Ezpadiogu gogoz
Ekiten lanari.

—Egia:—esan zuen Alper-andik;—lana;... lana gogotik egitea, ori da bear dana; baña goizean goiz jaikitze gure morroya, zér egiñ nezake? zion nagusiak, konturatu gabe morroyakaditzen zuela,

—Tratu bat—eranzun zuen morrogak; —emendik aurrera goizean lenengo jaikitzen danak, izan dezala eskubidea *ioia* bestearen kontura edateko, eta ondorian, oian dagoanari pichar bat ur burutik bera botatzeko.

—Ondo da; bipartik—eranzun zuen nagusiak—bigartik asiko gera. Onetan daude; eta gertatzen dana esango dizue

UR-ZALE BATEK.

